

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3368

AGINDUA, 2014ko uztailaren 23koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin lankidetzan jardun nahi duten irabazi asmorik gabeko erakundeei dei egiteko dena, 2014-2015 ikasturtean eskola-esparruan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzeko.

Hezkuntza-sistemak behar diren estrategiak eta baliabideak izan behar ditu, ikasle ijitoak, eskola arrakasta lortzeko, gainontzeko ikasleen egoera berberetan egon daitezen.

Eskolak biztanleria guztia hartzen du, derrigorrezko eskolaldian behintzat. Eta eskolaldi hori nahitaezko izanik, honako konpromiso hau du: pertsona guztiei beren ahalmen-gaitasunak ahalik eta gehien gara ditzaten erraztea, gizarteratzeko eta laneratzeko aukera izan dezaten, berdintasun baldintzetan.

Helburu horiek lortu eta ijito-herriak zor zaion lekua izan dezan, kulturarteko hezkuntza-proiektu bat behar du eskolak, desberdintasunak gainditu eta ikasle bakoitzaren premiak kontuan hartzea azpimarratuko duena. Segregazioa eragiten duten proposamenak alde batera utzita, eskola inklu-siboaren esparrua funtsezkoa da helburu horiek lortzeko gizarte-kohesioko eta berdintasuneko testuinguru batean, betiere desberdintasuna errespetatuz.

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan 0 urtetik aurrera bermatzen da hezkuntza eta 6 urtetik 16 urtera bitartean derrigorrezkoa da. Dena den, haurrak adin zehatz batzuetan eskolatze hutsak ez du, hezkuntzari begira, berdintasuna bermatzen.

Azken urteotan aurrerapen handiak izan dira ijitoen eskolatzean baina, hala ere, ikasle ijitoen eskola-arrakasta ez dago gure erkidegoko ikasle gehienen maila berean.

Ijito-herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. euskal plana dokumentuan ondorengo oztopoak adierazten dira:

– Ijitoen kultura ez da ezagutzen eta ijito-herriaren benetako egoerari buruzko hausnarketa falta da. Izan ere, familia ijitoen aurrerapena zailtzen duten dinamikak eta hesiak daude, eta, oro har, gaurko gizartean gero eta desberdintasun gehiago egotea eragiten duten dinamikak dauzkagu.

– Ijitoei buruzko aurreiritzi eta estereotipo ugari daude, ia beti negatiboak.

– Itxaropen gutxi dago ikasteko aukerei edo interesari begira, eta horrek era negatiboan eragiten die ikasleen itxaropenei, baita eskolari eta prestakuntza orokorrari begira dauden jarreretan eragina izan ere.

Oztopo hauek gainditzeko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko plana (2012-2015) garatzen ari da. Ikasle-talde honi beste neurri, programa eta abarren parte-hartzaile egiteaz gainera, ikasleen aniztasunari erantzuteko zuzenduta dago.

Testuinguru horretan, dei egiten zaie ikastetxeekin lankidetzan arituz 2014-2015 ikasturtean garatu beharreko hezkuntza-jardueren proiektuak aurkezteko interesa duten erakundeei.

Aginduan proiektu horiek aurkezteko mekanismoak eta epeak eta berauen artean aukeratzeko prozesuak finkatzen dira eta argitara ematen dira irizpideak eta aukeratze horren arduradunak.

Horregatik, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Irabazi-asmorik gabeko erakundeek 2014-2015 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-esparruan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzeko aurkezten dituzten proiektuak diruz laguntzea da agindu honen xedea.

2. artikulua.– Diru-baliabideak.

1.– Deialdi honi laurehun eta hogeita hamabost mila zortziehun eta laurogeita hamar (435.890) euroko zenbatekoa ematen zaio, lurraldeka banatuta:

a) Araba: 73.395 euro.

b) Gipuzkoa: 101.990 euro.

c) Bizkaia: 260.505 euro.

2.– Diru-laguntzak hiru prozedura erabiliz esleituko dira, aipatutako lurraldeetan banaturik. Eskaerei erantzun ondoren hiru prozeduretako edozeinetan agortzen ez bada dagokien kontsignazio ekonomikoa, soberakina beste bi prozedurei dagozkien laguntzak ordaintzeko erabili ahal izango da. Zirkunstantzia hori gertatuz gero, Administrazio eta Zerbitzuetarako sailburuordearen ebazpenaren bidez emango da aditzera.

3.– Kopuru hoak deialdia ebatzi aurretik handitu ahal izango dira, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren beste programa batzuk gauzatu ondoren gelditzen den aurrekontuaren arabera, eskaeren kostu globala kontuan hartuta. Zirkunstantzia hori gertatuz gero, Administrazio eta Zerbitzuetarako sailburuordearen ebazpenaren bidez emango da aditzera.

3. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan ijitoen eskola-arrakasta areagotzeko eta ijitoak dauden ikastetxeetan kulturen arteko bizikidetzak hobetzeko asmoz egiten diren jarduerak.

2.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak irakasleekin lankidetzan gauzatuko dira eta, era berean, ondorengo alderdiak jasoko dituzte:

a) Ikasle ijitoen eskola-arrakasta handitzekoak:

I.– Ikasgelan bertan eta ikasgelatik kanpo irakaskuntza-indargarri diren jarduerak, eskolaratze-ikuspuntutik, eta, betiere, talde-klasearen barruko lanari lehentasuna emanez.

II.– Ikastetxearekin lankidetzan aritzea, ikaskuntza hobetzen laguntzen duten eskola-programetan eta eskolatik kanpoko programetan, ikasle ijitoek jarduera horietan gehiago parte hartu dezaten (PROA plana, ikastetxeko eta auzoko liburutegiak, tailer sozioedukatiiboak, eskolatik kanpoko jarduerak.).

III.– Ikasleen banakako segimendua, tutoreekin lankidetzan, banakako tutoretzak barne (beharrezkotzat joz gero) eta eskolaratze-jarraibideei jarraituz.

IV.– Taldeka tutoretzak egitea, tutoreekin elkarkidetzan arituz.

V.– Ijito-herriari ikastetxe barruan bistaratzen laguntzeko jarduerak.

VI.– Ikasle ijitoen arrakasta sustatzen eta zabaltzen dutenak; esaterako, ikastetxera eskola-arrakasta izan duten ijitoak eramatea edo ikasle ijitoekin topaketak egitea.

b) Hezkuntza-komunitatean kultur arteko bizikidetza hobetzera zuzendutakoak:

I.– Familiek euren seme-alaben hezkuntza-prozesuan parte hartzea sustatzen duten jarduerak.

II.– Bizikidetza hobetzen laguntzen duten jarduerak, hezkuntza-kidegoaren partaidetzarekin (ikasleak, irakasleak, senideak, gizarte-eragileak.).

III.– Eskolarik gabeko uneetan ikastetxeek ijitoen erakundeekin zuzeneko lankidetzan antolatutako jarduerak.

4. artikulua.– Erakunde eskatzaileek bete beharreko baldintzak.

1.– Deialdi honetan parte hartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko dagokion erroldan inskribatuta eta alta emanda egon behar dute 2014-2015 ikasturtean eskola-esparruan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzeko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin lankidetzan jardun nahi duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek.

2.– Gainera, erakunde eskatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzea.

b) Ez izatea diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko debekurik zigor- eta administrazio arloan, eta ez izatea laguntzak jasotzeko legezko debekurik, sexu-bereizkeriaren ondoriozkoak barne direla, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoarekin bat etorritz.

5. artikulua.– Baldintzak egiaztatzea.

1.– Ofizioz egiaztatuko da erakunde eskatzaileak legez eratuta eta Euskal Autonomia Erkidegoko dagokion erregistroan inskribatuta dauden.

2.– Ofizioz egiaztatuko da, halaber, erakunde eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dauzkaten.

3.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.6 artikulua betez, betebeharrak hauek egiaztatuko dira eskaeran, erantzukizunpeko adierazpen bidez:

a) Edozein administraziori edo erakunde publiko zein pribaturi xede bererako diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak eskatu eta, jaso izanez gero, jaso direla.

b) Eskabideko eta harekin batera doan dokumentazioko datuak egiazkoak direla, eta betetzen direla laguntza horiek jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak.

c) Ez izatea diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko debekurik zigor- eta administrazio arloan, eta ez izatea laguntzak jasotzeko legezko debekurik, sexu-bereizkeriaren ondoriozkoak barne direla, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoarekin bat etorritz.

4.– Erakunde eskatzaileek eskabideetan beren-beregi adierazi ahal izango dute baimena ematen diotela organo kudeatzaileari gainerako datu edo dokumentu guztiak eskuratu edo egiaztatzeko, betiere Administrazio Publikoak dituen egiaztatze-, kontrolatze- eta ikuskatze-ahalmenei kalterik egin gabe.

5.– Betebeharrak ebazpena eman aurretik egiaztatuko dira, bai beharrezko egiaztagiria erakutsiz, bai organo kudeatzaileari betebeharrak zuzenean egiaztatzeko baimena emanaz.

6. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Erakunde interesdunek baliabide elektronikoak erabiliko dituzte eskaerak, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak egiteko.

2.– Administrazio elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak eta Informatika eta E-Administrazio Plataforma Teknologikoa onartu zuen Telekomunikazio zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak arautzen dute izapidetze elektronikoa.

3.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainontzeko ereduak bide elektronikotik izapidetzeko argibideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskura daitezke: <https://euskadi.net/>

4.– Eskaera egin ondorengo izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa egingo dira, helbide honetan: <https://www.euskadi.net/diruguntza/2014/alumngit-ijikas/y22-izapide/eu>

5.– Bitarteko elektronikoen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoan izapideak egiteko ordezkari bat izendatzen denean, pertsona horrek alta emanda egon beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko Ordezkarien Erregistro Elektronikoa: <https://euskadi.net/>

7. artikulua.– Eskabideak aurkeztea eta epea.

1.– Eskaerak aurkezteko epea hamabost egunekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Eskabidearekin batera, 2014-2015 ikasturterako jarduera-proiektu bat aurkeztu beharko da.

2.– Eskabideak modu elektronikoa aurkeztu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.net/diruguntza/2014/alumngit-ijikas/y22-izapide/eu>

3.– Eskabidearekin batera, 2014-2015 ikasturterako jardueren proiektua aurkeztu beharko da. Proiektu horretan, diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua jaso beharko da, jarduera bakoitzak izango dituen langile-gastuak eta bestelako funtzionamendu-gastuak zehaztuta.

4.– Jarduera-proiektuan honako hauek jasoko dira:

a) Zehazki zein den proiektuaren eraginpeko ikasle ijitoen kolektiboa.

b) Jardueren eremua, lurralde historikoa eta eskola-maila.

c) Jardueretan sartzen diren ikastetxeak.

d) Jardueren eta behar diren giza baliabideen eta baliabide materialen deskribapena.

5.– Eskabide-eredua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuratu ahal izango da, helbide honetan: <https://www.euskadi.net/diruguntza/2014/alumngit-ijikas/y22-izapide/eu>

6.– Erakunde eskatzaileek eskabidea eta horri erantsitako dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dute, eurek aukeratzen duten hizkuntzan. Prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, azaroaren 24ko 10/1982 Legearen, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoaren, 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatutako moduan.

8. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

Aurkeztutako eskaeretan Hezkuntza Berriztapenerako Zuzendaritzak akatsik edo zehaztasun gabeziarik ikusiz gero, hamar eguneko epean zuzentzeko edo behar diren arauzko agiriak ekartzeko eskatuko dio interesdunari, eta jakinaraziko dio horrela jokatu ezean eskaerari uko egin diola interpretatuko dela horretarako ebazpena eman ondoren, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak 42. artikuluan xedatutakoaren arabera.

9. artikulua.– Datuak Babesteko Legea.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen izapideetan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira, hain zuzen ere «Ikasleen Elkarrekin Diru-laguntza» deritzona. Fitxategi horren helburua deialdi honetako diru-laguntzak kudeatzea izango da, bai eta deialdi honetara aurkeztu diren pertsonen deialdiaren garapenari buruzko informazioa ematea ere. Fitxategi honen arduraduna Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza da. Sarbide-, zuzenketa-, ezabatze- eta aurkatze-eskubideak baliatzeko, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia kalea 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz. Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten lagunek baimena ematen diote Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta dezan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla.

10. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

11. artikulua.– Ebaluazio-batzordea.

1.– Ebaluazio-batzorde honek aztertu eta ebaluatuko ditu aurkeztu diren jarduerak:

a) Batzordeburua: Pedagogia Berriztapenerako zerbitziburua.

b) Batzordekideak:

I.– Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutza bakoitzeko ordezkaririk bat. Hezkuntza Berriztatze zuzendariak izendatuko ditu ordezkaririk horiek.

II.– Berritzegune Nagusian ijitoak eskolaratzeko arduraduna den pertsona.

c) Pedagogi Berriztapenerako Zerbitzuko pertsona batek jardungo du idazkaririk gisa (Hezkuntza Berriztatze zuzendariak izendatuko du).

2.– Ebaluazio-batzordeak, batzordeburuaren eskaririk eta bere funtzioak hobeto betetzeko, kulturartekotasuneko adituen aholkularitza eduki ahal izango du. Aditirik horiek hitzarekin baina botoririk gabe jardungo dute.

12. artikulua.– Esleitzeko eta baloratzeko irizpideak.

1.– Ebaluazio-batzordeak baloratuko ditu aurkeztutako proiektuak, ondorengo irizpide objektiboaren arabera:

a) Zein mailatan egokitzen diren agindu honen 3. artikuluan adierazitako helburuetara. 0 puntutik 12era.

b) Komunitate ijitoko pertsonen parte-hartzea programaren kudeaketan eta gauzatzean. 0 puntutik 4era, komunitate horretako pertsonen ardurapeko jardueren ehunekoaren arabera.

c) Arreta ematen zaien ikastetxe eta ikasleen kopurua, eta eskaintzen zaien denbora. 0 puntutik 4era, eraginpeko kolektiboaren, beronen sakabanaketaren eta dedikazio-denboraren arabera.

d) Erakundeak edo laguntzaileek agindu honen eremuan duten esperientzia. Esperientzia hori baloratzeko, honako hauek erabiliko dira: erakunde onuradunek aurreko ikasturtean egindako txostena, erakundeek lagundu duten ikastetxeetan egindako balorazioak eta dagokien berritzeguneen txostenak. 0 puntutik 5era.

2.– Deialditik at utziko dira a) atalean 6tik beherako puntuazioa edo guztien batuketan 17tik beherakoa duten eskaerak.

3.– Diruz lagunduko dira 12.2 artikuluan exijitutako gutxieneko puntuazioa lortzen duten proiektuak. Puntuazio hori gainditzen duten proiektuek aurrekontuan sartutako kostuaren % 100era arteko diru-laguntza jaso ahal izango dute (gastuak ken diru-sarrerak).

4.– Lurralde bakoitzean, aitortu beharreko diru-laguntzen guztizkoa 2. artikuluan jasotako zenbatekoak baino handiagoa izanez gero, proiektu bakoitzaren aurrekontuari bakoitzak lortzen duen puntuazioaren arabera ehuneko aplikatuko zaio. Gauzak horrela, 17 puntutik aurrera, aurreko artikulua aplikatuz lortutako puntuazioaren arabera diru-laguntza lortuko du proiektu bakoitzak, eta 25 puntuko gehieneko puntuazioarekin % 100a lortuko dute.

5.– Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatu ondoren, hainbanaketa egingo da, diru-laguntzen guztizkoa aurrekontuaren mugara egokitzeko, proiektu bakoitzaren banakako aurrekontua inolaz ere gainditu gabe.

13. artikulua.– Ebazpena.

1.– Hezkuntza Berriztatze zuzendariak, ebaluazio-batzordearen proposamenez, ebatzi beharko du agindu honetan arautzen den deialdia. Ebazpen horretan, diru-laguntzarako eskubi-dea duten erakundeak eta diru-laguntzen zenbatekoa azalduko dira, baita gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik diru-laguntzarako eskubiderik ez duten erakundeak ere.

2.– Aipatutako ebazpena gehienez ere sei hilabeteko epean jakinaraziko da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epe hori pasa ondoren aipatutako ebazpena jakinarazi ezean, interesdunek beren eskaerak atzera bota direla interpretatu ahal izango dute, Administrazioak, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak xedatutakoaren arabera, espresuki ebazteko duen eginbeharraren kalterik gabe. Ebazpena bide elektronikoa erabiliz jakinaraziko zaie interesdunei, eta zabalkundea emateko besterik ez da argitaratuko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

3.– Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsio aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

14. artikulua.– Jarraipen-batzordea.

1.– Erakunde onuradunentzat, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak jarraipen-batzorde bana eratuko du. Kide hauek izango ditu: Hezkuntza Berriztatze zuzendaria edo beronen ordezkari dagoena, zuzendari horrek izendatutako funtzionario bat eta erakunde onuradunaren ordezkari bat.

2.– Hona hemen batzordearen eginkizunak:

Sailaren beharrianen arabera, erakunde onuradunen jarduerak zein ikastetxetan egingo diren erabakitzea. Lehenetsuna izango dute Administrazioaren «Hamaika Esku» jarduera-planean parte hartzen duten ikastetxeek.

- a) Ikastetxe bakoitzean zer jarduera, ordutegi eta abar izango diren zehaztea.
- b) Jardueren jarraipena egitea eta, hala badagokio, baliabideak berriro antolatzea.
- c) Proiektuaren barruko jarduera guztiak ebaluatzea.

15. artikulua.– Laguntzen bateragarritasuna.

Diru-laguntza hau bateragarria da erakunde onuradunak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren edo beste erakunde publiko edo pribaturen baten aldetik jaso dezakeen beste edozein diru-laguntzarekin, onartzen diren hezkuntza-jardueretarako, betiere jasotako guztiak benetan jasandako kostuaren guztizkoa gainditzen ez badu.

16. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako laguntzak jasotzen dituzten erakundeek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua) ezarritakoak.

- a) Jarduera aurrera eramatea, edo diru-laguntza ematea bidezko egiten duen egoeran egotea.
- b) Diru-laguntza eman duen erakundeari justifikatzea emate hori eragin duten edo laguntzaz baldiatzea eragin duten baldintzak betetzen direla eta jarduera bera aurrera eramanez dela.
- c) Laguntza eman duen erakundeak egiten dituen egiaztapenen mende eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak burutzen duen ikuskaritzaren mende egotea, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura eskuratzen diren laguntza edo diru-laguntzei dagokienez. Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi bereziko neurrien mende ere egotea.
- d) Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako diru-laguntzak, laguntzak, dirua edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea diru-laguntza eman duen erakundeari.
- e) Diru-laguntza jasotzeko kontuan hartu zen edozein egoera objektiboren edo subjektiboren aldaketa oro jakinaraztea diru-laguntza eman duen erakundeari.

2.– Emandako diru-laguntza onartzea. Ildo horretatik, jakinarazpenaren osteko hamabost eguneko epean ez bada berariaz eta idatziz uko egiten, diru-laguntza onartu egin dela ulertuko da.

3.– Diru-laguntza bere helbururako erabiltzea.

4.– 14. artikuluan adierazitako batzordeak ezartzen dituen ikastetxe eta ordutegietan egitea jarduerak.

5.– Diruz lagundutako jardueren ondorioz sor daitezkeen arriskuak bere gain hartzea eta, behar izanez gero, aseguru egokia egitea.

17. artikulua.– Ordaintzeko era.

1.– Diru-laguntza bi alditan ordainduko da.

a) Aurre-ordainketa bat egingo da, diru-laguntzaren % 20koa, emandako laguntza onartu eta berehala.

b) Gainerakoa, diru-laguntza osoaren % 80, bitarteko txostena aurkeztu ondoren ordainduko da. Hartan, proiektuaren ordura arteko garapena zein izan den jasoko da eta ikastetxeetan garatzen ari diren lan-plangintza aipatuko da. Txosten hori 2015ko urtarrilaren 7tik 31ra aurkeztuko da.

2.– Diru-laguntzak eta laguntzak pagatu ahal izateko Administrazioak, Ogasun eta Finantza Sailko Kontrol Ekonomikoko Bulegoan jasota egon beharko du erakunde eskatzaileak. Hirugarren intermedun baten datuak aldtzeko edo izena emateko, bide elektronikoa erabiliaz, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailak emandako hirugarrenen erregistro telematikoara jo beharko da, helbide honetan: http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/eu/contenidos/informacion/regtelter_infor/eu_rtt/infor_rtt.html

18. artikulua.– Laguntzen justifikazioa.

1.– 2015ko ekainaren 30etik aurrera, eta 2 hilabeteko epean, erakunde onuradunek «Gastuen justifikazioa» izeneko idazki arautua aurkeztu beharko dute, eta horri erantsita, hezitzaileen nominak eta gainerako gastuen faktura eta ordainagiriak eman beharko dituzte.

2.– Agiri horiekin batera, programaren emaitzak ebaluatzeko azken txostena aurkeztu beharko dute, honako hauek bilduko dituen:

a) Ikastetxe bakoitzeko esku-hartzearen fitxa, ikastetxearekin adostutako lan-plangintzaren garapen-maila eta horren balorazioa jasotzen dituen.

b) Emaitzen analisia, proiektuaren egokitasuna eta egin beharreko aldaketak zehaztu ahal izateko.

3.– Justifikazioak eta memoria bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.net/dirulaguntza/2014/alumngit-ijikas/y22-izapide/eu>

4.– Justifikatzen den zenbatekoa txikiagoa bada emandako diru-laguntza baino, ebazpenean zenbateko horri dagokion aldaketa egiteko prozedurari hasiera emango zaio, eta, beharrezkoa balitz, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galtzeko prozedurari ere bai.

19. artikulua.– Diru-laguntza emateko baldintzen aldaketa.

Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako baldintzak gerora aldatzen badira –diru laguntzaren helburua betetzeari utzi gabe, betiere–, diru-laguntzak emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Horretarako, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak likidazio-ebazpena emango du, eta, horren bidez, emandako diru-laguntzen zenbatekoak doituko dira.

20. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Diru-laguntza emateko arrazoitzat hartutako baldintzak nola edo hala bete ez direla egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan xedatzen denari jarraituz. Eta batik bat kasu hauetan:

a) Justifikatzeko betebeharra bete ez bada.

- b) Diru-laguntza ez bada erabili eman zen helbururako.
- c) Baldintzak bete gabe jaso bada laguntza.
- d) Agindu honetan ezarritako betebeharrak bat edo batzuk bete ez badira.
- e) Jardueraren kostua kontuan izanda, gehiegizko finantzaketa gertatu bada.

2.– Baldintzak betetzen ez direnean, itzultzeko erabili beharreko prozedura lehen aipatutako azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan (1992-02-07ko EHAA) xedatzen denaren arabera izango da. Diru-laguntza edo laguntza-ren kontzeptua dela-eta behar ez bezala jaso diren diru-kopuruak itzultzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamendua onartzen duen abuztuaren 31ko 212/1998ko Dekretuan ezarritako modalitateei jarraituko zaie, eta itzulketa Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiaren izenean egingo da, betiere kontuan hartuta maiatzaren 2ko 69/2007 Dekretuaren bidez sartutako aldaketak.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 23a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.